

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**188/2019 Foru Agindua, uztailaren 19koa, hasierako onespena ematen diona Bachicabo herriko 552 lurzatian, 13 poligonoan, Gaubeako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, telefono mugikorreko deien banagune bat eraikitzeke interes publikoaren adierazpenaren gaineko espedienteari (instalazioaren sustatzailea: Telefónica Móviles España SA)**

Telefónica Móviles España SAK Gaubeako Udalari obra lizentzia eskatu dio Bachicabo herriko 552 lurzatian, 13 poligonoan, telefono mugikorreko deien banagune bat eraikitzeke. Hauek osatuko dute instalazioa: 3.50x4.50 metroko esparru hesitu bat eta, haren barruan kokatuta, 40.00 metroko sareta dorre bat eta telekomunikazio ekipamenduak edukiko dituen aire zabaleko bastidore bat.

Gaubeako Udalak espediente bat bidali eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatu du, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen osagai dira 0100518 Bachicabo telefono mugikorreko deien banagunea ezartzeko proiektu tekniko ikus-onetsia eta udaleko arkitektoak egindako txostena, zeinean adierazten baita lurzatia A-1 Nekazaritza eta S-1 Basoa kalifikazioa duen lurzoru urbanizaezinean dagoela, udalerrirako indarrean dauden arau subsidiarioetan ezarritakoaren arabera. Araudi horretako 164. artikuluan, erabilera baimendu bezala jasotzen dira onura publiko eta gizarte intereseko azpiegitura eta instalazioak, baldintza jakin batzuk betetzen badituzte.

Proiektuaren deskripzio memorian adierazten da, halaber, PEBA edo Banda Zabala Hedatzeko Programaren barruan dagoela, eta horren helburua dela abiadura handiko eta oso handiko banda zabaleko zerbitzuak gaur egun estaldurarik ez duten eta, aurreikus daitekeenez, hurrengo urteetan ere izango ez duten eremuei emateko gauza diren komunikazio elektronikoko sareen estalduraren hedapena azkarragotzea. Gobernu Kontseiluaren martxoaren 22ko 143/2016 Erabakiaren bidez, onetsi zen AFAREN 2015-2019 legegintzaldirako Plan Estrategikoa. Horren barruan, lerro estrategiko hau zehazten da: "7.4.2 Araba Konektada programa abian jartzea. Guztientzako estaldura Arabako landa ingurunean". Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 122/2018 Erabakiaren bidez, 2018rako eta 2019rako dirulaguntzen emakida onetsi zen azken belaunaldiko banda zabaleko sareak hedatzeko Arabako herriguneetan eta biztanleria sakabanatuko aldeetan.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espediente bat ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera, eta Sail honen egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak betiere dagokion foru diputatuak ebatzen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Bachicabo herriko 552 lurzatian, 13 poligonoan, telefono mugikorreko deien banagune bat eraikitzeke interes publikoaren adierazpenaren gaineko espedienteari (Telefónica Móviles España SAK sustatu du instalazioa, eta Gaubeako Udalak izapidetu du).

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeitun egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesa dutenek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 19a

*Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*